



# Harreman lesbiko eta homosexualen baitako **TRATU ONEN** alde

GENERO INDARKERIARI BURUZKO GAJETAN LGTBen IKUSPEGIA TXERTATZEKO  
TXOSTENA: EZTABAIDARAKO PROPOSAMENAK





## **ALDARTE**

Gay, Lesbiana eta Transexualen Arretarako Zentroa

Berastegi kalea, 5-5.a

48001 Bilbao

Tel.: 944 237 296

aldarte@aldarte.org

www.aldarte.org

2012ko urria

Egilea: Inmaculada Mujika Flores

## **Laguntzaileak:**



# Harreman lesbiko eta homosexualen baitako **TRATU ONEN** alde

GENERO INDARKERIARI BURUZKO GAIETAN LGTBen IKUSPEGIA  
TXERTATZEKO TXOSTENA: EZTABAIDARAKO PROPOSAMENAK

## Aurkezpena

Azken urteotan Genero Barneko Indarkeriaz (GBI)<sup>1</sup> landu dugun gogoetatik abiatzen da txosten hau. Errealitate horri buruzko datu ofizialik eta estatistikarik ez dagoenez, ALDARTEn egunero garatzen dugun lanean oinarrituta daude gogoetok, lan horri esker datuak eskuratu ez ezik tratu txarreko harremanetan sartuta dauden nahiz bikotekidearen indarkeria jasan duten edo jasaten ari diren emakume lesbiana eta gizon homosexualen historiak ezagutu ahal izan baititugu.

Urte hauetako jardueran, etengabe egin dugu topo genero barneko indarkeriaren errealitatearekin, eta, hori dela eta, **IKUSI, EBALUATU eta EKIN** izeneko kanpaina abiatu genuen 2008. urtean; informazio kanpaina horren bitartez, indarkeria mota hori ikusarazi eta horri buruzko gizarte gogoeta bultzatu nahi izan dugu, tratu txarrei aurre egiteko bitartekoak eskaintzeaz batera. Honoko hiru ardatz hauen inguruan antolatu da kanpaina:

- **IKUSI;** ardatz honek genero barneko indarkeriaren problematika ezagutzea du xede, eta barne hartzen ditu ikuspegi kontzeptuala, tipologikoa, legegintzakoa eta lekukotasunena.
- **EBALUATU;** bikote barruko indarkeriaren jatorrian dauden faktoreak aztertzen ditu ardatz honek: ezkutatzea, ezjakintasuna, salaketa aurkezteko zailtasuna, gizarte bereizkeria.
- **EKIN;** ardatz honetan tratu txarren kontrako baliabideak eskaini nahi dira, bai eta indarkeria edo tratu txarreko egoeretatik ateratzeko deia zabaldu ere.

Kanpainako informazio guztia ALDARTEn webgunean dago, “Indarkeriarik gabeko txokoan”<sup>2</sup>. Atal horretan zenbait material ikus daitezke: afixak, sentsibilizazio-kaiera, galdetegiak, tratu txarrak antzemateko eskuorriak eta genero barneko indarkeriari buruzko artikulua sorta zabal eta interesgarria.

<sup>1</sup> Sexu bereko pertsonen arteko harreman afektibo eta sexualetan gertatzen den indarkeriari esaten zaio genero barneko indarkeria.

<sup>2</sup> Argibide gehiago: [www.aldarte.org/rinconsinviolencia/site/](http://www.aldarte.org/rinconsinviolencia/site/)

Lan ildo horretan, GBIn buruzko ikerlan bat<sup>3</sup> argitaratu genuen, indarkeria mota horrek zer eragin duen, nola gauzatzen den eta biktitek horren aurrean zer egiten duten jakiteko asmoz.

Txosten honek gaiari buruz ditugun kezak jasotzen ditu, arazo horri buruzko datuak azaltzen ditu, eta gizarte, politika eta lege ikuspuntutik errealitate horri aurre egiteko zenbait proposamen aurkezten ditu.

## Genero barneko indarkeriaren definizioa eta ezaugarriak: errealitate baten deskripzioa

**Genero barneko indarkeria (GBI) esaten zaio sexu bereko pertsonen arteko harreman afektibo eta sexualen baitan, modu askotarikoan, gertatzen den indarkeriari, eta, emakumearen kontrako gizonaen indarkeria kasuetan bezala, boterea baliatuz biktima mendean hartzea eta kontrolatzea du xede erasotzaileak.**

GBIk ez du gizarte asaldurarik sortzen, ez zaio garrantzirik ematen, bere inguruabar bereziak direla eta; ondorioz, ezinezkoa da arazoaren benetako dimentsioa zein den jakitea.

Aipatu inguruabarrak honoko hauek dira:

- **Indarkeria mota hau ezkutuan geratzen da**, eta, hedabideek noizean behin agertzen dituzten albiste laburrak salbu, ez da horretaz hitz egiten. ALDARTEK egindakoa izan ezik, gure herrian ez dago diagnosi bat eman eta ekintza zehatzak bideratzeko oinarria eskain dezakeen ikerlanik. Ikuspuntu kuantitatibotik, ez dakigu zein den mintzagai dugun errealitate horren dimentsioa. Orain artekoan, ez dago indarkeria mota horren estatistika eta zenbakirik. Ingalaterran, AEBn, Australian zein Mexikon egindako ikerketa akademikoek diotenez, sexu bereko bikoteen baitan gertatzen den indarkeriak

<sup>3</sup> Hemen ikus daiteke: <http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/INFORMEENCUESTAVIOLENCIAINTRAGENERO.pdf>

bikote horien %25i eragin diezaioke.<sup>4</sup> Kontuan hartuta munduko beste zenbait tokitan GBIn antzeko prebalentzia aipatzen dutela, indize horiek Espainiako errealitatera estrapola daitezkeela pentsa daiteke. Alabaina, geure errealitatean oinarritutako ikerlan eguneratuak beharko genituzke.

- **GBI pairatzen duten pertsonen gutxitan adierazten edo jakinarazten dute:** Gure gizartean, oraindik ere, gay eta lesbiana asko ez dira ausartzen beren orientazio sexuala jendaurrean agertzen, ezta gertukoenei ere (familia, lagunak, lankideak); beraz, zaila da indarkeria hori salatzea eta are hitzez adieraztea ere. Norberaren orientazioa eta sexu bereko beste pertsona batekin bizi den harremana agerrarazten ez badira, nekez salatuko da harreman homosexual edo lesbiko baten baitako indarkeria.
- **Gay eta lesbianek kontzientzia falta dute beren buruak biktima modura ikusteko.** Indarkeria hori nola, zer elementuren bitartez azaltzen den identifikatzen ez duenez, biktima ez da jabetzen bikotekideak tratu txarra ematen diola. Hori dela eta, ezin ditu beharrezko neurriak hartu egoera horri amaiera jartzeko eta gainditzeko. Modu berean, tratu txarrak ematen dituenak ez du bere burua halakotzat jotzen.
- **Harreman lesbiko eta homosexualen gizarte bereizkeria.** Horren eraginez, indarkeria adierazpenak edo horien kontrako salaketak gutxietsi egiten dira edo ez zaie garrantzirik ematen. Zenbait ingurunetan, homosexualitatea eta lesbianismoa ez daude oraindik ondo ikusita, “bigarren mailako” harremanatzat jotzen dira, eta, beraz, GBIn berariazko salaketa edo kexen aurrean, “ez da hainbesterako izango” edo “gehiegikerietan ari zara” izan ohi da erantzuna; horrek areagotu egiten du indarkeria jasan duen pertsonaren isolamendua eta bakardadea.
- **Gay eta lesbianek dituzten harremanei buruzko mitoak:** mito faltsu horiek direla eta, ezinezkotzat jotzen da sexu berekoen artean indarkeria gertatzea. Adibidez, harreman homo-lesbikoetan gertatzen den berezko berdintasuna: horrela, gay bikote baten baitan gertatzen dena ez litzateke indarkeria kasua, ez bada elkarrekiko eraso; edota, emakumeak mendekoak eta otzanak izan ohi direnez, ezinezkoa da tratu txarra gertatzea harreman lesbiko baten baitan, etab.

<sup>4</sup> Dauden ikerketen buruzko argibide gehiago: [www.forumlibertas.com/frontend/forumlibertas/](http://www.forumlibertas.com/frontend/forumlibertas/); [www.convencion.org.uy.](http://www.convencion.org.uy;); [www.rimaweb.com.ar/safopiensa/reflex\\_les/violencia\\_fron.html](http://www.rimaweb.com.ar/safopiensa/reflex_les/violencia_fron.html); [www.mujaresenred.net/iberoamericanas/article.php3?id\\_article=30](http://www.mujaresenred.net/iberoamericanas/article.php3?id_article=30); <http://sololesbianas.blogspot.com/2007/06/existe-alguna-diferencia-entre-la.html>  
SOLA Erakundea (Survivors of Lesbian Partnership Abuse) [solalondon@hotmail.com](mailto:solalondon@hotmail.com)  
Michelle Bourke Documental “The Second closet”, Australia 2005.

Hori guztia dela eta, duela 30 urte emakumeen kontrako indarkeria zegoen egoera berean dago, gaur egun, GBI: **gizartearen arreta eskasa, sentiberatasun falta, kontzientzia urria, ikusezintasuna, biktimen kontzientzia eza. Gizarteak ez du arazo horren aurreko erantzunik eskatzen, errealitate ikusezina eta, beraz, ezezaguna delako.**

Genero barruko indarkeriaren dimentsioaz dakiguna: aldarre-k 2010ean egindako ikerketa

### Ikerketan parte hartu zuten pertsonen ezaugarriak

Hurrengo **ezaugarri hauek** zituzten parte hartzaile gehienek:

- **Emakumezkoak** dira (% 75,5).
- **Pertsona helduak** dira, 21 eta 40 urte artekoak (%71,8).
- **Ezkongabeak** dira (% 58,2).
- **Goi mailako unibertsitate ikasketak** dituzte (% 59,1).

Emakume eta gizonen arteko alde bat badago, galdetegiari erantzun ziotenen artean **emakumeek, oro har, gizonezkoek baino heziketa maila handiagoa baituzten.**

### Genero barneko indarkeriaren tipologia

Horrelakorik jasan edo jasaten dutenek gehien aipatu dituztenak honako hauek dira:

- **Hitzezko mehatxuak** (% 52,3).
- **Jendaurreko umiliazioa** (% 46,2).
- **Bakartze soziala** (% 43,1).
- **Kontrola** (dirua, telefonoa, posta...) (% 38,5).
- **Eraso fisikoak** (% 30,8).

Beste alde batetik, adierazi behar da sexu berekoen arteko tratatu txarrak edo indarkeria jasaten duten **pertsonetako askok (% 55) aukera dutela beren bizipena egoera berean dauden beste pertsona batzuekin konpartitzeko**; laguntza handiena adiskideengandik hartu ohi dute, familiarengandik baino gehiago.

### Genero barneko indarkeriaren iraupena eta egoera

**Ezin da baieztatu generoen arteko indarkeria jasateko aukerak areagotzen duen faktore erabakigarri bat da goenik (sexua, adina, ikasketa maila, lege egoera).**

Alabaina, egiaztatu egin da sexu bereko bikoteen baitako **indarkeria mota batzuk errazago edo sarriago gertatzen direla talde jakin batzuetan.**

- **Emakumeak:** maizago agertzen dira ahozko mehatxuak (% 54), bakartze soziala (% 45) eta eraso fisikoak (% 34).
- **Gazteak** (21 eta 30 urte artekoak): joera handiago antzeman da horien artean **zuzeneko indarkeria** jasateko; esaterako, hitzezko mehatxuak (% 59,1) eta eraso fisikoak (% 45,5).
- **31 urtetik gorakoak:** gehiago lotzen dira **tratu txar psikologikoekin**, eta maiz gertatzen da indarkeria **“ikusezina”** (bakartze soziala eta kontrola). Egoera horiek finkatu egiten dira harremana egonkortu eta formalitzen den heinean. Oro har, emakumezkoak dira talde honetako gehienak.

Sexu berekoen arteko indarkeria egoeren ezaugarrietako bat aldi berean **tratu txar mota bat baino gehiago** gertatzea da, eta erantzun dutenen % 51k **urte bete baino denbora luzeagoan** gertatu dela adierazi dute.

Indarkeria kasu horien maiztasunari dagokionez, aldatu egiten da eraso motaren arabera. **Eraso fisikoak puntualagoak** izan ohi dira; **tratu txar psikologikak**, berriz, **ia egunero antzematen dituzte** galdetegiari erantzun diotenen erdiak baino gehiagok.

### Genero barneko indarkeriaren biktimek hartutako neurriak

**Genero barneko arteko indarkeria jasaten dutelako inkesta egin diegun pertsonen % 89,2k horri buruzko neurriren bat hartu duela adierazi du.** Eki-men nagusiak honela labur daitezke:

- **Erasoa; % 72,2k adierazten du harremana eta lotura oro eten duela.** Galdetutako pertsona gehienek egin duten aukera izan arren, egia da horretarako joera handiagoa dagoela **ezkongabeen artean.**
- **Kontraerasoa;** oso pertsona gutxi, **%9,2k baino ez, jarri du salaketa.**
- **Aholkua hartzea; % 12,3k elkarteren** batengana jotzen du, eta **% 10,8k gizarte zerbitzuetara.** Jokaera hori ezkonduetako pertsonekin eta izatezko bikotea osatzen dutenekin lotuta dago.

**Laguntzari** dagokionez, **aipatzen den lehena lagunena** da. Horiengana jotzen da egoera azaltzeko eta bizipena konpartitzeko. Bigarren postuan, familia (batez ere gizonezkoen artean) eta lankideak agertzen dira.

Azkenik, aipatu behar da inkesta anonimoa izan arren badagoela “ez du erantzuten” aukera hautatzen duenik, eta horrek **pertsonen segurtasun eza** adierazten du zenbaitetan.

## Lege alderdiak: pertsona LGTBak eta genero indarkeriaren kontrako babes integralerako neurrien abenduaren 28ko 1/2004 lege organikoa

Lehenik eta behin, azpimarratu nahi dugu Genero Indarkeriaren kontrako Babes Integralerako legearen oinarrian dagoen pentsamendu-tradizio historikoaren arabera indarkeria gizonezkoek gauzatzen dutela emakumeen kontra. **Lege horrek, funtsean, ikuspegi heterosexualetik heltzen dio genero indarkeriaren tratamenduari.** Legeak ahaztu egiten du harreman afektibo eta sexualen baitako indarkeria ez dela bakarrik harreman heterosexualetan gertatzen, eta bi gizonezkoek zein bi emakumeek osatutako bikote eta familietan ere gertatzen direla indarkeria kasuak, bai fisikoak nola psikologikoak. **Indarkeriari horrela aurre egiteak zaildu egiten du gizonezkoengandik emakumeen kontrakoak ez diren indarkeria motei heltzea, horiek ere jarrera sexistekin loturik egon arren.**

ALDARTEn jakitun gara lege jardunbidean antzeko babesa ematen zaiela genero indarkeriaren biktimei diren emakumeei zein genero barneko indarkeriaren biktimei. Alabaina, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren ondorioz emakumezkoen eskaintzen zaizkien bestelako babes neurriak desberdinak dira.

Genero Indarkeriaren kontrako Lege Integralerako, GBI egoerak errealitate ikusezina dira, eta, ondorioz, legeak ez ditu arautzen. GBIn biktimek ezin dituzte baliatu legeak arautu eta zenbait erakundek gauzatzen dituzten babeserako neurriak: harrera zentro batera jo, lantokia eta bizitokia aldatu, lan eszedentziak funtzio publikoan, laguntza ekonomikoak, lan sustapena, atzeritartasunarekin lotutakoak, etab. Babes laguntza horiek, ordea, eskaini egiten zaizkie gizon batengandik genero indarkeria jasan duten emakumeei. Babes neurri horiek GBIn biktimei ere eskaintzea eskatzen du ALDARTEk.

Beste alde batetik, legearen izena gorabehera, badakigu genero indarkeriaz ari dela, hala agertzen baita Atariko Idazpuruan, 1. Artikuluan, non hau ezartzen baita: “gizon eta emakumeen arteko botere harremanen, desberdintasun egoeraren eta bereizkeriaren ondorioz emakumeen bikotekide diren edo izan direnek zein, haiekin batera bizi gabe ere, antzerako harreman afektiboak izan dituztenek emakume horien aurka baliatzen duten indarkeriari aurre egitea du xede Lege honek”. Gure ustez, etxeko giroan sortzen den indarkeriak barne hartzen du GBI, hori ere etxe giroko indarkeria baita.

## Genero indarkeriari buruzko planteamenduetan LGTBen ikuspegia txertatu: eztabaidarako proposamenak

**Txosten honen bitartez, gizarte eztabaida sustatu nahi du ALDARTEk genero barneko indarkeria ikusarazteko eta horren biktimei babes sozial eta legala helarazteko. Aurreko lerroetan azaldu den egoera kontuan hartuta, hurrengo proposamenak agertu nahi ditugu:**

- 1 Genero barneko indarkeria genero indarkeriatzat jotzea.** Genero indarkeriaren definizio zabalekin bat egiten dugu; hortaz, indarkeria horrek barne hartzen ditu larritasun askotariko ekintza suntsitzailak, direla ahozkoak, sexualak, fisikoak zein psikologikoak, bai eta genero zein orientazio sexualaren ziozko jazarpenak, tratatu txarrak eta abusuak<sup>5</sup>.
- 2 Genero indarkeria errealitate konplexutzat hartzea, hori sor dezaketen faktoreak askotarikoak direla uste baitugu:** gizonezkoen menperatzeko oldarra, sexismoa, elizaren eta haren mezuen (ezkontza-sakramentua) eragina, familia egitura (era guztietako tentsioak leuntzen edo sortzen dituen pribatutasun gune itxi gisa ulerturik), sakrifizio oro merezi duen maitasun erromantikoaren kontzeptua, gatazkak konpontzeko gaitasun gabezia eta heziketa sentimental falta, homofobia eta lesbofobia, alkoholismoa eta toxikomaniak. Auzi korapilatsu horiek guztiak lausotu egiten dira baldin eta, genero indarkeriaren kontrako lege integralean egiten den moduan, faktore sexista (gizonezkoaren emakumearekiko nagusitasuna) kausa bakartzar hartzen baita.

<sup>5</sup> Ikus: Zenbait egile, “la violencia hacia las mujeres y hacia otras personas percibidas como distintas a la norma dominante: el caso de los centros educativos”, Revista de Educación, 342, Urtarrila-Apirila 2007, 61-81 or.

**3 Homofobiak eta sexismoak oinarri bera dutela ulertzea**<sup>6</sup>. Homofobia sexismoaren adierazpen bat dela baieztatu daiteke, eta, alde horretatik, nolabaiteko genero zainza eraten duela; hala, emetasunaren ukazio/ oposizio den neurrian ez ezik, homosexualitatearen (edota aniztasun sexualaren) arbuizatu modura taxutzen da gizentasuna. Homofobia neska nahiz mutilengan agertzen da, eta gizentasunaren kontzeptio patriarkalak eraldatzeko oztopo nagusienetako bat da.

**4 Genero indarkeria eta genero barneko indarkeria errealitate guztiz desberdintzat ez hartzea.** Desberdintasunak egon, egon daitezke batak zein besteari inguruabarretan eta agerpen moduetan, baina ez zaigu iruditzen indarkeria azaltzeko arrazoiak desberdinak diren LGTBen harremanetan eta harreman heterosexualetan. Kasu batean zein bestean, pertsona batek beste bat menperatu, azpiratu eta kontrolatzeko rola errepikatzen dira. Ez dugu uste lege bereziak justifikatzeko adinako desberdintasunik dagoenik bi indarkerien artean.

**5 Sexismoa kultur eraketa bat dela gogoan hartzea.** Ez dago alde aurretik baldintzatutako izaera kontrajarririk: emakumeak biktima eta gizonezkoak menperatzaile. Nagusitasun ustea sustatzen duten ezaugarri kulturalak daude, eta horiek, muturrera eramanez gero, benetako tirano bilaka ditzakete gizonezkoak. Alde horretatik, gay eta lesbianeek ez diete itzuri egiten genero baldintzapenei, eta baldintzapen horiek agertzen dituzte sortzen dituzten harremanetan ere. Bikote homosexualak osatzen dituzten pertsona horiek bakoitzari dagozkion genero rola barneraturik dituztela jarduten dute, orain arte inor ez baita ez hezi ez sozializatu gay edo lesbiana izateko.

**6 Gizartearen konplexutasuna eta etengabe gertatzen diren aldaketak aztertzea.** Aldaketa horiek dilema berriak sortzen dizkiete legeei, herritarren bizimodua hobetzeko tresna diren heinean, horien berri jaso behar baitute. GBlri dagokionez, esan dezakegu Genero Indarkeriaren kontrako Lege Integrallean aurreikusten diren babes neurriak aplikatu egiten zaizkiela bai bikote harremanaren baitan tratatu txarren biktima diren lesbianeiei, bai eta senarren aldetik heriotza mehatxuak izan dituzten gizon transexualei<sup>7</sup>.

6 Horri dagokionez, ikus: Zenbait egile, Eskola orientazio sexualaren aurrean, Txostena, ALDARTE, Bilbo, 2008 [www.aldarte.org](http://www.aldarte.org), Unibate Didaktikoa: Giza eskubideak eta aniztasun afektibo-sexuala. Nazioarteko Amnistia [www.es.amnesty.org](http://www.es.amnesty.org); E. Barberá, Martínez Benlloch, Psicología y género, Pretext Hall, Madril, 2004, "Actitudes sexistas y nuevas formas de formar de sexismo" atala, M. Noya Morales; COGAM La orientación sexual en el sistema educativo español, Madril, [www.cogam.org](http://www.cogam.org); Zenbait egile, Informe diversidad afectivo-sexual en la formación de docentes, CEDMA, Málaga, 2008, [www.ojalamalaga.es](http://www.ojalamalaga.es)

7 Adibide bat ematearren: Bilbon bizi diren emakume lesbianeek udaleko Emakumearen Sailera jo dezakete aholkularitza eta laguntza bila tratatu txarreko harreman bizi baldin badute, eta orain arte emakume heterosexualak eskaintzen zitzaizkien gizarte baliabide zenbait baliatu ditzakete. Ikus Maite Mateosen (Bilboko Udaren Genero Indarkeria Programako arduraduna) **Violencia Intragénero: "Sin Género de Excusas"** <http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/violencia-intragenero.pdf>

Horrek esan nahi du legeak tratatu txarren biktimen babesarako ezartzen dituen neurriak, praktikan, hasiera batean arauan aurreikusten ez ziren pertsonari aplikatzen ari zaizkiela eta legeak arautu gabeko egoerak hartzen direla kontuan; horrek agertarazten dituen hutsuneak eta kontraesanak aztertu, jorratu eta konpondu beharko lituzke Genero Indarkeriaren kontrako egungo Lege Integralak.

**7 Tratatu txarreko egoera bizi duten eta arreta programetan artatzen dituzten emakume lesbianentzako arreta bermatzea.** Legearen II. Idazpuruan jasotzen diren eskubideak aplikatzea: Gizarte-laguntza integralerako eskubidea, lan eskubideak, Gizarte Segurantzako sarrietarako eskubideak, enplegu programetara biltzea, eskubide ekonomikoak, etxebizitzetarako aukerak...

**8 Tratatu txarrari aurre hartzeko ekimenei dagokienez,** beharrezkoa deritzogu LGTBen ikuspegia txertatzeari Legearen I. Idazpuruan arautzen diren neurrietan –indarkeriaren kontra sentsibilizatzeko eta hori antzeman eta saihesteko neurriak–, eta alor guztietan: hezkuntza, osasuna, publizitatea, hedabideak...

Hezkuntzaren alorrean, garatzen ari dira dagoeneko sexu aniztasuna kontuan hartzen duten eta harreman heterosexualen bakarrik zentratzen ez diren hezkuntza programak, pertsonen arteko harremanetan tratatu txar oro ezabatzerako bideraturik<sup>8</sup>.

**9 GBI arautuko duen berriazko legerik ez sortzea.** Bi gizonezko edo bi emakumezko osatutako bikotekideen eta bikote heterosexualen arteko berdintasun erreala defenditzen dugulako proposatzen ditugu legearen aldaketak; hala egin zuen, bere garaian, LGTBen mugimenduak, ezkontzari dagokionez Kode Zibilaren aldaketa planteatu baitzuen eta ez sexu bereko pertsonen arteko elkartzak arautuko lituzkeen berriazko legerik.

LGTBen eskubideen aldeko erakundeek, gaia eztabaidaturik, aurka egin zieten LGTBen bikoteak, lege, Kode Zibilek kanpo babesteko planteamenduei; horiek "ezkontza" hitzetik kanpo kokatu nahi zituzten, funtsa bestelakoa zelakoan. Borrokatu ondoren, lege tratamendu bera lortu zen, eta legezko berdintasun hori LGTBen bikoteei dagozkien eragin eta inguruabar guztietara zabaltzeko behar da, ez bailuke zentzurik izango sexu bereko pertsonen arteko harremanak lege onartzea eta horien ezkontzak arautzea, eta aparteko lege

8 Ikus, adibidez ¿Activas el antivirus buenos tratos?; Acción Alternativa, [www.porlosbuenostratos.org](http://www.porlosbuenostratos.org)



batean arautzea sexu berekoen arteko indarkeria; izan ere, indarkeria hori ezkonduakoen artean agertzen da maiz, beraz, zentzurik gabeko kontraesana litzateke horrela jokatzeko.

Gaur egun, sexu bereko bi pertsonen ezkontzak eragindakoen lege arauketa – dibortzioa edo ezkontzaren baitan jaiotako seme-alaben izen ematea– bikote heterosexualen berbera da; zergatik ez genero barneko indarkeriaren kasuan?

**Kode Zibilak bikote heterosexualen eta LGTBen bikoteen arteko berdintasuna ezartzen duenez, berdintasun erreal eta benetako hori gainerako lege eta kodeetara zabaldu behar dela uste dugu.**

- 10 Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa aldatzea proposatzea, genero barneko indarkeria pairatzen duten pertsonen lege hori aplikagarri zaiela jakin dezaten.** Garrantzitsua da legeen funtzio soziala kontuan hartzea; alde horretatik, Genero Indarkeriaren kontrako Lege Integralak GBI barne hartzea lagungarria litzateke genero barneko indarkeria agerrarazteko, egon badagoen arren ikusezina baita. Horrelako indarkeria badagoela eta hori pairatzen duten pertsonen babesa merezi dutela onartzea aurrerapauso garrantzitsua da tratu berdintasunerako, baita gizarteak errealitate honetaz ohartu eta kontzientzia har dezan.



[www.aldarte.org](http://www.aldarte.org)

Jarraitu iezaguzu [facebooken](#) / [twitteren](#) / [youtuben](#)  
[www.facebook.com/aldarte.zentroacentro](http://www.facebook.com/aldarte.zentroacentro)  
[twitter.com/ALDARTE](https://twitter.com/ALDARTE)  
[www.youtube.com/user/Aldarte1](http://www.youtube.com/user/Aldarte1)